

## 20/05 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea  
Aitor Idigoras  
Ainara Ibañez  
Lierni Lizaso  
Mari Tere Ojanguren  
Eduardo Ubieta  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko maiatzaren 26ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lanbide espezializazioko hiru programa ezartzen dituen ekainaren 15eko Agindua aldatzen duen agindu proiektuari buruzkoa.**

## I. AURREKARIAK

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko ekainaren 15eko Aginduko (EHAA, 2020ko uztailaren 20ko 141 zb) xedea da lanbide-heziketaren hiru espezializazio programaren egitura ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 12 ter artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

## II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat dauka

Artikulu bakarrak aldatu egiten da lanbide-espezializazioko hiru programa ezartzen dituen 2020ko ekainaren 15eko Aginduaren II. eranskineko d) idatz-zatia “Retail sektoreko produktu freskoak espezializatzeko programa”.

Azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean agindua.

## III. BALORAZIOAK

Kontseiluak 20/02 Irizpenean eman zuen espezializazio profesionaleko hiru programa ezartzen dituen proiektuari buruzko iritzia. Programa haien artean “Retail sektoreko produktu freskoetan espezializatzeko programa zegoen eta aldatzea proposatzen da..

Aldaketak proposatzen du programa horietarako sarbidea ematen duten titulazioak zabaltzea, eta Sukaldaritzako eta Gastronomiako teknikariaren titulazioari, ekainaren 15eko Aginduan jasotzen zena, honako titulazio hauek gehitzea:

- Elikagaiak Merkaturatzeko Teknikaria
- Okintzako, Gozogintzako eta Konfiteriako Teknikaria
- Merkataritza jardueretako Teknikaria

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren memorian azaltzen denez, aldaketa horretarako kontuan hartu dira programaren curriculum eta sektoreko enpresen eskaerak.

Kontseiluak, bere garaietan, aldeko txostena egin zuen lanbide-espezializazioko programa hori arautzeari buruz, eta ez du eragozpenik proposatzen den aldaketarako.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 26an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA